

SIRIAKO, HERRI-KIROLLEN ABOTSA

A

rrate Irratiaren
sintoniaren bidez,
bere abo- tsa egu-
nero sartzen da
gure artera.

Herri-kirolak ko-
munikabidietan dakan hutsunia betet-
zia lortu dau bere eguneroko komen-
tarixuekin.

Bere etxeko egongelan basarri-
ren kantu-papelak, Uztapideren
bertso-liburuak, Gabriel Arestiren
lanak, sukaldaritza ta kirolari bu-
ruzko liburu ugari, hainbet garaikur
ta erretratukin tartekatzen dia.
Mahai gaiñian, egunero irakurtzen
dixuan hiru periodikuak.

**DROGETENITTURRI- UMETAN ES-
KOLAK IKASTEKO AUKEARIK IZAN ZENDUAN?**

Siriako- Ez larregirik. Eskerrak
irakurtzia asko gustau jatala beti; ho-
rretxek salbau niñuen. Euskeraz zein
erderaz, danetik. "La voz de España"n
Basarrik egunero euskeraz artikulotxo
bat idazten eban ta hantxe hartu neban
euskeraz irakurtzeko afiziñu hau.



**Pertsona gitxik ezagutuko dabe herri kirolen mundua Siriakok
beste**

**D.- ZELAN HASI ZIÑAN ARRATE
IRRATITIK BERBETAN?**

S.- Txiripaz, oiñ dala 14 urte.
Lehenengoz parte hartu nebanian ez
neban berba eiñ, ez. Kantu zaharrak
batzeko sai u baten kantau eiñ neban!.

Egunak beranduago herri-kirolekin
hasi nintzan, gero Ermuko ta Eibarko
plazetako prezixuak emoten jarraitxu
neban ta ontzurarte inguruko herrixeta-
ko barrixak jaso ta emoten egon naz.

Estanko SOLOZABAL

Daniel Solozabal Areitio

Torrekua, z/g. • Tfnoa. 17 07 33
ERMUA



DROGETENITTURRI - EUSKAL BIRUSA

247 Posta Kutxa 48260 Ermua

Izen-abizenak Telefonoa

Helbidea

☐ ETXEAN JASO NAHI DUT ALDIZKARIA ☐ DROGETENITTURRIIN PARTE HARTU NAHIKO NUKE

☐ EUSKAL BIRUSAN PARTE HARTU NAHIKO NUKE, BESTE EKINTZA BATZUETAN

Norbait agurtu edo zoriondu, zeozer saldu, erosi edo aldatu, ala beste edozer esateko hementxe
duzu zeure lekua:

D.- HERRI-KIROLAK ASKO DIA, EZ?

S.- Bai, sokatiria, harri jasotzia, txinga erutia, idi-probak, aizkolariak, kaskara batzia, zaldi-mando probak, asto probak, gizon probak, palanka jaurtzia, bola jaurtzia, bedar ebatia, adari topekia, oillar burrukia... Pelota ta arrauna berez be herri-kirolak dia, baiña zabalduauak daoz.

D.- ZEIN DA GUSTOKOEN DOZUN KIROLA?

S.- Pelotia. Larogei urtetik hona pelotari guztixen historixia dakitx.

Txirrindularitza be asko gustatzen jata. Probetan 40 urte pasauan nabil ta harri jasotze txapelketetan be gustora egoten naz. Hiru harri ipiñi, harri molde bakoitzakin bost bat miñututan eusten ikustia da dotoriena. Sokatirarako oster, ez dakat afiziñu handirik. Luze juaten da. Tiraka ta tiraka, nork irabazi bihar daben asmau eziñik.

D.- ZEIN DA ZURETZAT HERRI-KIROLARIRIK ONE-NA?

S.- Oin erretirauta dao, baiña koloreik barik Markiñako Lehoia. Idixekin proban, asto proban, gizon proban bere hurrengokuari, txapel-dun ordezkuari, alderik haundixena kendu dotsana bera izan da.

D.- ETORKIZUNIK IKUSTEN DOTSAZU HERRI-KIROLARI?


S.- Bai, azken urtiotan be gora eñ dau. Direktiban zein dauan be asko esan gura dau. Bizkaikuan Isla lehen-dakari jarri zanetik, herri-kirolak bul-tzakada itxela hartu dau. Kanarias Japon ta Ameriketara zabaldu ditxu ta berton be indar haundixa emon dotsa.

D.- ZERK ERUATEN DAU JENTIA PROBE-TARA?

S.- Dima jokatzia. Afiziñuakin be asko juaten dia, baiña desafixuetan sari banaketarako ikuslegua gitxitu eitzen da beti.

D.- GANAUAK MALTRATU HAUNDIXA HARTZEN DABELA BEITXANTZEN JATA...

S.- Ez, gaur egunian ez. Federaziñua neurrixak hartuta dao. Epailliak atenziñua deitzen doutsie karreteruei akullua gogor sartu ezker. Bigarren abisura kalera doiaz!.



Siriakok denbora luzia darioia herri-kirolak segitxu ta zabaltzen.

Hillian behin biharra orain, babak ta lastua ta aterpe edarrian mantautu eukitzen dia ganauok. Baserrixetan ez dao oin idixekin goldaketara urtetzeko premiñarik ta probarako bakarrik pre-tauta ditzuez.

ESTIBALITZ GONZALEZ

OPTICA



J. CASADO

Lenteak
Audifonoak
Graduatutako Antijuak
Eguzkirako Antijuak

Kantabria, 2

Tfnoa. 17 33 57

ERMUA

Harategia



M. LAZKANO


Bertoko Okelak

Geure Baserrian Hazitako Txalak
Geuk gizendutako abeltzantza

Merkatua, 36-37 zbk.k - Tfnoa. 17 05 84

Ermua

PRO



- ARRAINDEGIA - ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK

ESKaintza Berezia
OSTIRALERO

Zubiaurre, 21 baxua

Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)

" 17 24 33 (etxea)

Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59 ERMUA